

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Thomas Sankara Burkina Fasoko kapitain gorri hura

2007ko ospakizunen artean bada bat herrialde frankofonoetako ezkertiar eta altermundialisten artean seguru aipatuko dena. Duela hogeitaz kolpe militar batek eten zuen Afrikako Burkina Fason lau urtez militar ezkertiar baten itzalean martxan jarritako iraultza saioa.

IKUR POLITIKO BIHURTUA, Thomas Sankarak herentzia intelektual eta politikoa Afrikaz gain mundu osoan utzi zuen. Horrek kezkatzen ditu batzuk Burkina Fasotik urrun ere. Bamakon 2006an egin Afrikako Gizarte Foroan eta Nairobiko 2007ko Munduko Gizarte Foroan batzuk gorabehera, Burkinan 1983ko iraultza oinarritu zen batetik, munduko harreman menperatzaileen kritikan –finantza erakundearen rola eta potentzia neokolonialena– eta bestetik, politika ekonomikoak berriro pertsonen beharretan eta lekuko merkatuen garapenean zentratzen. Ideia horiek ukatzen dituzte mundializazio liberalaren sustatzaileek. Nor da *Le Monde Diplomatique*ko bere blogean Ane-Cécile Robert-ek halako garrantzia aitortzen dion Thomas Sankara hori?

ARGIAko irakurle beterano batzuei ezaguna egingo zaie Sankara kapitaina. 1980ko hamarkadan behin baino gehiagotan ekarri zuen orriotara Pablo Sastrek, nazioarteko kroniketan. AEBen eta Sobiet Batasunaren arteko gerra hotzaren garai haietan, garapen bidean dauden herrialdeetan inperioarrekiko “dekonexioa” aldarrikatu zuten Samir Amin bezalako intelektual batzuek eta buruzagi politiko eta militar gutxiagok. Horién artean, urte labur batzuetan, Thomas Sankara militar gaztearen itzala handitzen joan zen

Afrikar barna. 1987ko urriaren 15ean hil zuten arte.

Hogei urte beranduago, liderraren omenezko ekitaldiak antolatzen ari dira, Afrikar batez ere, baina munduan barna ere bai. Burkina Fason bultzatze lanean Collectif International Sankara 2007 elkartea ari da. Honen buru ezagunena Sama Karim musikari eta irratigizona da, Sams’ K Le Jah izenez ezagunagoa. Mahai-inguruak, ikuskizunak, liburuak, elkarretaratzeak eta abar ari dira prestatzen. Ekintzetako bat Chiapasetik abiatu eta Italian barna, Frantzia eta Suitzatik pasatuz, Uagadugu hiribururaino helduko den ibilaldia izango omen da.

Horiek hala izango dira, baldin eta antolatzaileek ezbeharren bat noztzen ez badute. Dagoeneko amenazo anonimoz ari dira zigortzen Sams’ K Le Jah: “Thomas Sankara hil genuen eta ez zaigu ezer gertatu. Norbert Zongo (oposizioko kazetari burkinatarra, 1998an hila) garbitu genuen eta ez zaigu ezer pasa. Hire txanda ere laster helduko duk”.

Ez da irri egiteko kontua, zeren eta egia baita Sankara hil zutenak libre dabiltzala. Hiltzailatzat aipatu zirenetako bat berriketan hauteskondeetan aurkeztu omen da. Are nabarmenagoa: oraindik ere agiri ofizialtan Thomas Sankara *mort naturellez* hil zela esaten da.

Irudi handian, Uagaduguko horma batean egindako margolana, Burkina Fasoko nekazal munduko irudi bat islatzen duena. Argazki txikian Thomas Isidore Sankara, 1983tik 1987ra lehendakari izandako militar gaztea. CADTM erakundeak honela deskribatu du Sankarak oraindik ere afrikar gazteetan daukan itzala: “Sankararen sinpletasuna, espiritu argia, haren umorea, zulentasuna eta eskuzabaltasuna maite dituzte Afrikako gazte askok, ohartzen baitira beren buruak ezagutzen dituztela harengan. Horregatik erakusten dute beren berotasuna ‘Sankara klubak’ antolatuz, Malin bezala Senegalen, Boli Kostan, Beninen edo Ginean. Europako, Asiako, Latinoamerikako, AEBetako, munduko edozein txokotako gazteek ‘Sankara klubak’ sortu dituzte”. Nazio Batuen Erakundearen batzorde batek eskatu dio Campaoré presidenteari argitu dezala nola hil zuten Thomas Sankara.

Hirugarren Munduaren Zorra Deusezteko Batzordea (CADTM, frantsesezko sigletan) da kanpainari nazioartean babesa ematen dioten erakundeetako bat. Honen egitura baliatzen da herrialde askotan –Frantzia bereziki– Sankarari buruzko liburuak, filma berriak, eztabaidak eta beste aurkezteko.

Magnizidioaren 20. urteurrena ospatzeko CADTMk egin duen deialdian (“Sankara, ausart gaitezten etorkizuna asmatzen”) pasarte batean honek diote: “Burkinako agintari berriak Thomas Sankarak eta bere ekipoak egin lana desegiten ahalegindu diren arren, lau urte laburretan burutu zuten obra gaur ere bizirik dago afrikarren eta borrokan ari diren herrien bihotzetan, Afrikaren behar eta nahiei erantzuten baitiete. Zorra deusezte, neokolonialismoaren arazoak, ustelkeriaren kontrako borroka eraginkorra, emakumeen eskubideak, nekazarien ekonomia, herritarren erantzukizunak, osasungintza eta heziketa sustatzea... horietan guztietan Sankara aitzindari ageri zaigu”.

Neokolonialismoa salatu

1949an Thomas Isidore Sankara, Yako herrian sortu zen. Hura orduan Haute Volta (Hegoaldeko eskolan Alto Volta ikasi genuen) deitzen zen. Mossi-tarren kasta sisteman ongi kokatutako familia batean sortua zen,



eta aita gainera jendarmea zuen. Anaia Frantzian borrokatu zen Mundu Gerran, eta nazien preso egon. Thomasek militar ikasketak egin zituen, eta lehen enplegua Madagaskarren eduki zuen. Han bere begiz ikusiko zuen erregimen kolonial baten gainbehera, eta armada kolonialak matxinoei egiten zien gerra errukigabea. Militarren artean graduatan azkar igo zen, eta las-ter egin zen oso ezaguna Uagadugun, besteren artean musikaria ere bazelako: gitarra jotzen zuen Tout-à-Coup Jazz taldean.

Ofizial gazte multzo batekin Officiers Communistes talde sekretua osatu zuen. Militar ezkertiarren mugimendu eta kolpeak sarri ikusten ziren garai haietan Hirugarren Munduan. 32 urte-ekin, 1981ean, Informaziorako Estatu idazkaria zen Saye Zerbo koronelaren

erregimenean. Dimititu egin zuen, baina 1983an, Jean-Baptiste Ouedraogo presidenteak lehen ministro non-bratu zuen Sankara. 34 urte zituen.

Bere biografoek diotenez, berehala ekin zion Sankarak iraultza demokratiko eta herritarra garatzeko lanari. Urte horretan bertan, 1983an, Indiako Delhin burututako biltzar batean harremanetan jarri zen Fidel Castro-rekin eta orduan Mozanbikoko lehendakari zen Samora Machel-ekin. Urte horretan, Ouedraogo lehendakariak espetxean sartu zuen Sankara... François Mitterrand handik pasa eta berehala. Kasualitatea?

Kalean istiluak piztu zituen espetxeratze horrek, eta Blaise Campaoré militar lagunak emandako kolpeak atera zuen Sankara espetxetik, lehendakaritzan ipintzeko.

Herrialdea izen berriz bataiatu zuen, bertako bi hizkuntza nagusietako bi hitz erabiliz: Burkina eta Faso. Baina ikurraz gain, lau urtetan –beste kolpe batekin agintetik kendu eta bera hil zuten arte– egin zituen mintzaldiak eta martxan jarri zituen lorpenak gogortzen dituzte gaur ere Sankaragandik.

Nazio Batuen Erakundearen egoitzan honela mintzatu zen 1984an: “Larruazala beltza dutelakotz ghettoetan dauden milioika pertsonaren izenean mintzo natzaizue. Munduko iraultza guztien oinordeko izan nahi dugu”. 1986an François Mitterrandi honela hitz egin zion, honek Uagadugura egindako bisitan: “Giza arraza guztien artean gurea denez gehien sufritu duena, zin egin dugu ez dugula sekula lurralde honetako zatirik txikienean ere onartuko injustizia txiki-ekienik”.

Sankararen aldekoek bere mintzaldiak baino gehiago ekintzak dituzte gogoan. Haurren bakunazio masiboak, eskola eta ospitaleak eraikitzea, basoetan zuhaitzak landatzeko kanpaina, Sahelean desertuaren kontrako borroka, nekazaritzako erreforma prezioak arautu eta laborarici zergak kentzea, emakumeen askapenerako neurri aitzindariak (esizioa debekatu, poligamia mugatu, bizi politikoan emakumea integratu), etxebizitzaren inguruko plan zabala, eta abar luzea.

Espetxetik atera zuen Blaise Campaorék eman zion kolpea. Militar frantsesak ez ziren urruti. Eta Thomas Sankara mitoa sortu zen. 20 urte eta Campaoré dago oraindik agintean. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php>
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



Z E R B I T Z U A

Beti hurbilago.

Zerbitzu integrala,
pertsonalizatua,
hurbila eta
etengabea.
Horixe
da gure
konpromisoa.

ZINKUNEGI
OPTIKA

Herrani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL.: 943 420 624